Zainetan murrailak

Jose Luis Otamendi

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1987 Jose Luis Otamendi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1987ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Ene herriko plazak arku asko ditu
eta hala ere
bere begi goibeletan ez da inor galdu
arku asko ditu
eta behin ere
ez dute aurkitu
ziba gaztearen buruko txintxeta
Babelgo dorrearen behea
ene herriko plazak arku asko ditu
bere habe artean haurren jolasa gordetzen du

Ez diot inori
amodioak tolesteko gomendiorik egin
itsasora bota eta uhinek zizelkatuz
bekoki nekatu bateko hondartzan erein zitzaten
ez diot inori esan
zoriona ezki-hosto erorien artean deitzeko
inoiz ikusi badut ere arnas estuka paseatzen

oraino ez dut ikasi
amodioa ondo tratatzen
tratuak egiten zorionarekin
beti saiatu naizen arren horizonteari poema batez
traba egiten

Hire ahoan kokatuko diat hagina
hire burmuinean eskua
hire begietan irudi hauskorra eraikitzen hasiko nauk
hire gauaren atzean
eta hasiko gaituk hizketan
hizketan berriro
berriro hizketan
isilik egoten ikasiko diat
eta hitz besarkatuen artetik
aterako diat hiretzat
—alehop—
hiretzat akuri txuria

Zeruak beltzez mintzo dira egunotan
nik hitz batzu
fereken labean mamiturikoak
zorion dzangada eskainiko dizut
unetik unera
porrot egitearen samina
eta begi ilunak eskuetan ditut
leihoak bezala gauari lotuta

nik agur bat
zeruen hizkera aldatzeko grina
poematxo baten aterpe beroan
zubi eta kaiak eraikiko ditut
kaiuz ehunduta arratsa

Atzo
bihotzean
izar bat lehertu zitzaidan
atzo
sabelean
amets egin zen gorputza
atzo
begietan
ahantzi zitzaizun zerua
atzo
ezpainetan
loratu genuen biharra

Gaur ez zaitut ikusi
ez didazu deitu
eta orduak zurekin bezala eman ditut

gaur
maitasunaz
heriotzaz hitz bi egin dugu
eta gelan tximeleta eri bat sartu zaigu

gaur
euria egin du

gaur ez zaitut ikusi
ez didazu deitu
eta orduak zurekin bezala eman ditut

Bihar helduko natzaizu
goiza urratzera
gaua orraztera ene eskuekin

bihar helduko natzaizu
pena ehizatzetik
laztan ikastetik zure behakora

bihar helduko natzaizu
gogo zaharrenekin
leiho zabalekin bezperatik

bihar helduko natzaizu
uda ozenetik
negu isilera bion gorputzekin

Bizitza
kafetegietatik aterako balitz kalera
berriro ikustera bere garaipen totela
ikusiko luke
lokomotora bat desio erditik
kez betetzen gogoak eta
bihotzak
keramika apurren gisa leihotik botatzen
eta denbora ahalketsu egin den ordua
eta airea etenez josia ikusiko luke
non gizasemeak erratzen bait dira

Nora beha nagoen
zer behatzen dudan
urdail horretako har habi horizta
zure heriotza
zer behatzen dudan
jainko gabeko garizuma

Har nazan
arrats odolduko hodei bizia

itsatsiak dizkinat egunak haurtzaroan sorginak
bezala
eta asfaltoa ez dun karameluzkoa
eta gizon hura uste bezain ona
etxea ustelez erortzen ari dun
eta ez gidoigileak gura zuelako

maite haunat
behar bada baikor egingo naun
hiretzat
euri leuneko goiz triste horretan

Baneki
herdoilezko arrosa egiten
baneki
tintaz egunsentia pintatzen
baneki
aho hiletan ezpainak berpizten
baneuka poesia
malko bat bezala isuriko nuke

Gaua begira dut
leihoko argiaren kontra
teilatua besarkatuz
amodio bat
farol itzalien altzora

ez zaitezela joan
ene maitasun guria
dama beltzaren eskutik
ez zaitezela joan
jira eta jira dama beltzaren etxera

zatozela hona
haizea bultzaka erregalatzera
izarren azpitik nigana
leihoa zabalik zatozela hona
ilunpetan ferekatzera

Hil dira
arrosaz eginiko hesiak
esku epelik gabe
hil dira
ene gerrateko zaldiak
zaldunik gabe
hil dira ametsak
orain denbora kristalezkoa da

Nik izen bat dut
eta ez naute hartzen bere besoetan arratsek
ez didate deitzen

nik itsulapikoa
eta irri ibaiak pasadan
amets bat auto baten kurpil beltzetan
nik izen bat eta
agonia asko keinu banaletan bituak
nik desioa eta
zain guztietatik murrailak

Ez da nahikoa izanen musu bat
munduko itsaso lohituak iraungitzeko
ez da oihu bat aski izanen
indar sortzailetaz sinesten hasteko
gutti da arratsa besoetan hartzea
gutti da ortzadarra
enamoratuak guttiegi gara

Nor hil den ez dakit
hil dela dakit bakarrik
agian
zeu izango zinen
hitz baten belardi beltzetan

Buruan
historia osoko asesinatzeak dabilzkidanean
irudikatzen zaitut eta
zu ere ez zara salbatzen

Sor zitekeen izar bat zare bularreko ikaran
kristalezko doinua zure arnasetik
eta sabelean jario mantsoa
eta zangoetan irribarrea
zementoak harriz egina dela baleki
maitasunak hutsune itoez
eta farolen keinuz arratsak

desio pilatuak orbelen gisara
behako gardenen aintzina
bi minuturen mugak elkar kolpatzea
zerua ausikika

Errusiako estepetan aurki zaitzaket biluzik
haize hotzaren besoek kolpatua
lastozkoak bailiran zure soinadarrak
eta adatsa

honuntzago bilatu nahi zaitut
tximinia herdoilduak eta
mendiko harkaitzak
kaiu ajatuak lekuko direla
maitasuna ez bait da gaua izendatzea
gauean sartuta ilunpea izatea baino
ez bait da arrosa biltzea
heriotza urez oinaze apaina bihurtzea
nik hemen nahi zaitut
ene eskuen dardar artean zarena
orduen mugetan hara eta hona kontrabandista
trebea
nik hemen ukitu
sutsuki desiratzen zaitut
nik hemen maitale hondogabea behar dut

Harri bat jaurti dut hiriko bihotzera
hotsa ez zen hotsa
formol hasperen bat itota
isil oinorderik eza

Nori utziko dizkiok
inork erregalatu ez dizkian besarkadak
eta nori amestu huen egunsenti hura

gehienez ere gauari zapata zahar batzuk eta
alkohol usaina
behin entzun huen doinua eta
puta eder baten ezpainen marka
gauari utziko dizkiok
erreumak jotako hire hatzak eta
arnasik gabeko sabela
gauari utziko dizkiok bidean ikasitako hitzak
eta zimurdurak hasi zireneko zerua
gauari utziko dizkiok guztiak
hark bakarrik zekizkik eta estaltzen hilotzak erabat

Esan bazenit lore haiek ez zirela lehertuko bizira
gau hura maitasunaren azkena
ilunezko obusen pean hilen ginela
ez nituzke hondar aleak bilduko
ez nituzke bortxatuko malko bariko gogoak
esan bazenit haizea gure murmurioez ahitua zela
biola piano eta tronpa oro larru bizitan jarrita
ene bihotzean sortutako esperantza hari bakoitzetik
urkatuko nuke
amorruz maite nituen eta

Nerea eta nere arbaso haustuen historia
pauso geldiroz dakart gogora
leku orotan dantzut belardi gabeko ezkila
eta hodei iraunkor baten lantua
pertsona ilun andanak somatzen ditut
urte ta mendeen tolesduretan
beldurraren menpeko hegada urduri bat
eta uste gabeko amiltzea
hala datozkit estutzen nauen katea
nahi eta ezinez josia

traizionatzen dut aldika
traizionatzen nau aldika
inoiz ahantzi ere egin nau
        egin dut
        aske denaren planta

Zure begietan kausitu ez badut
egunsentia
hil nadila

zure ahoan etzango ez badira
kalatxoriak
hil nadila

zure bekokian ernetzen ez bada
ostarkualako pentsamendurik
hil nadila

zure gorputzean paseatuko ez banaiz
ilunabarrero
hil nadila

nire bihotzean lekurik ez badu
haizearen murmurioak
zu gabe hil nadila orain

Hi ez haiz maitasun naufragio batetako hondakina
uhin ahalketsu batzuk
leunkiro hondartza isilera eramana
hi ez haiz haizeak jipoitzen dirauen bandera
odolezko amets artean
ezer landatzeko utzi gabe hila
hi planeta bat haiz
ta ondotik erortzen zaizkian izarrak
aurki ezinak dituk unibertsoko zokoetan
hi planeta bat haiz
eta hemen zitzilik
kontaezinak dituk isladatzen hauten ilargi urdinak
hi planeta bat haiz
eta higan zegok paisai euritsuen portua

Ez baletor inor
ene bihotzean hilgo
ene odoletan
lirateke desio antzuak
ene arnasa zarpail
ene azala ito
mirail kraskatuetan begira
eta zu bazatoz
eta hi bahator
untzak lotzen banau murrailera
harri
belar
zuku izanen naiz
maitasun zaharren bat mamitzeko

Bizitza
arrosa zauritu bat balitz
denbora kantari emanen nuke
zugatik hodeiak ohostuko nituzke
eta amets hordi batekin lo egin

bizitza
arrosa zauritu bat ez da
herdoila eta irrintzia nahasten zaizkit hemen
barrena
eta aireari esaten maitea maitea maitea

Hain maite ez balitz ere
egun hau
ilargi arrosa batekin
badoa kalean behera
eta hik pozik
esanen duk ordua
eta hik
ezer jakin gabe
aitortuko duk gaua
eskainiko diok azkenik beste masaila

Maitea
itsasoan ura ari da gora eta behera
arroketan haizea etzan da

gure maitasuna hareazkoa da
arratsez
hodeiez
besarkada sutsuz egina
gure maitasuna besteena bezala
ederra
apala
minbera
gure maitasuna besteena bezalakoa da
amaitu egingo da

Hiri emanen dizkinat
nire ordu bakartien etekin zimelak
emanen dizkinat baita ere
noizbehinka isuritako grinaren atalak
eta ferekak igande arratsetan
eta bi eskuekin agur herabe bat
hiri emanen dizkinat hileroko nire gauzak

Sinetsi dezaket
hodei hura
jainko onaren ile sorta grisa
zure begietan Sinbad eta Ulises elkartzen
direla
maite nauzuela

sinetsi dezaket
heriotza astiro
nahigabe bezala etorriko dela
eskutik hartuta bereganatzera

sinetsi dezaket
odolik edo
igurtziren batzuk
bizirik iraungo dutela
bihotzen bateko orri horiztatuetan

Zuk esan zenidan
bizitzari egiteko leku betazaletako tartean
eta ureztatzeko neguko orri zuriak
zuk eman zenidan
kristal atzetik gogoa ateratzeko manera
eta krabelina behar nuenean

Maitasun gauetan laztanak bezala
galderak
ferekak
galderak gauari
marmorezko hitzak bihotz gorrietatik
ametsen erditik bularrak sabelak
eta hatz baten
aurren ukimena
eta gogo baten
lehenbiziko eskea
begien artean itsaso gazia
eta horizontea helgaitza
bi esku
bi esku
hamar hatz ditut
eta begi banatan gaua

Horiz
berdez idazten dut arratsa
erortzen zaidanean kapel bat bihotzera
eske urdinez betea
harkaitz gaziz gainezka

beti nabil idazten
unerik apalena hitzetan gatigu nahiz
kaleko bazterretan
tabernan
lagunetan ondoren isiltzeko
metaforak ahantzita
elipsiak ardo batek itota

eta horiz eta berdez idazten dut arratsa
idazten ditut gauak
hodei baten ahoa
idatziz dut jarraitzen
idazten naiz ahituko
auto-seinale gabeko hizkuntzetan barrena
horiz

telefono minenak zenbaki gehiegi du

berdez

hosto batzu eta zu

Ene ezpainetan kokatzen diren arratsek
ez dakizkite emeki iraungitzearen onura
izarren ura eta zu
gertu zaudela

ene ezpainetan habitzen diren hodeiek
ez dute entzuten ene gogoeten zama
itsaso zaharra eta ni
hor dabilela

ene ezpainetan hilaurtzen diren kaleek
ezin ikusi zoru grisean etzanda mina
esku ito bat eta gu
pasa ginela

Egunak ez dira behin baizik esnatzen
ta argi egiteko urrunegi zaude
itsasoa hor dabil ametsak dantzatzen
eta izar bat
eta izar bat biztu da kalean

nondik nora joan etxerik ez badut
gaueko lurrunek gogoz hartu naute
galdu zen laztan bat bilatuko dizut
eta izar bat
eta izar bat biztu da gauean

kaleak iluna soilik du ematen
eta bazterretan desioak lo daude
haizeak teiletan dihardu kantatzen
eta izar bat
eta izar bat biztu da zeruan

egunak ez dira behin baizik esnatzen
eta ene bihotza ez da inoiz lokartzen
zutaz maitemindu zuen gaumin batek
eta izar bat
eta izar bat biztu da gurean

Gogoratuko duzu heriotzak zuen masail horia
gelako itzal ketsuan
agure eta amona aulki marroietan
bete beharrekin jarrita

korridorean zoru freskoa
pauso ahul batzuen azpitik
eta negar pixka isilik
haurraren bideak leuntzen

bi koadroetan arbasoak
denbora hatzetan balego bezala
eta behakoak orman erhailak
edo ezpain gorrien puzturan

jendetza triste marmarka
besarkadak eta intzentsua
pertsonen joateaz solasa
eta bihotzean gorde ezin lurrera zeramaten kaxa

eskaileretan beheruntz baldar
karreran
kalean
airean

geldiro kanpaiak
haurtzaroa iheska
arropa beltz haiek
ta atea itxi zuteneko danbada

Erre egingo lirateke nire ezpainak gaurik ez balego
itsasoa ito arrainik ez balu
ortzea itzali hegaztirik gabe

bakardadea neuregan ez balitz ezingo nioke inori
eskaini
ihes egiten diodaneko besarkada sorta
ta irribarrerik ez luke sortuko zu kausitzeak egunero
ez nuke zure isiluneekin ametsik egingo
ez nituzke jalgiko maitasun poemak oren nagien
lekuko
bakardaderik ez baneuka
izarrak ez lirateke jaitsiko nire leihorantza
eta ene ezpainak erre
erre egingo lirateke gaurik ez balego

Erresuma honetan debekatua da amets egitea
kristalak beso guriak zauritzen hautsita
irribarre ahul bat horiztaturik hiltzeko euriak
zoruko grisean negarraren plantak egiten
txikle paperetan idazten dolumin txartelak
eta eskuetan ezpatarik ikatzik ez daiteke agertu
ukitzen ditudanean
orbela lurretik hartzean ez dira hunkitzen hori
deritzazun arren
eta nik
euriaren pean musukatu ditut zazpi buruko
herensugearen ezpainak
zuen primua zena paperontzi bete batean hilik
kausitu dut
ekarzak honuntza txanpaina
eta halan doaz orduak
ostarkua eta aluak hartxintxarrez betez
eta halan doaz gizasemeak
undina zahar baten altzoan tarteka-marteka
erortzen direla
ekarzak honuntza txanpaina

Maitea hitz bi
logura dut eta
nire ordez oroitu
desertuan galdurik dabilen gamelu zahar hura